

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARRIGORRIAGAKO UDALAREN 2010- EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arrigorriagako Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren eta bere Toki Erakunde Autonomoaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Kontratazioaren atalean HKEEk adierazi du Udalak urratu egin dituela hainbat kasutan administrazioko kontratazioan buru egiten duten arauak; aipagarriena hainbat zerbitzu edo obra kontratu prozedura desegoki bidez izapidetu eta/edo esleitu izana da, zenbatekoaren arabera kasu bakoitzean beharrezko lehia bermatu gabe.

Udalaren eta bere erakunde autonomoaren Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 2,1 mila euroan murriztu dutenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu eta kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen ataletan.

Azkenik, Udalaren finantza egoerari dagokionez jakinarazi da 2008-2010 aldian kanpoko zorpetzea baliatu behar izan duela gauzatutako inbertsioak finantzatzeko, nahiz 2011ko ekitaldian zehar kreditu eragiketa gehiago izapidetzeko oraindik ere legezko

ikuspuntutik marjina duen. Nolanahi den ere, aldi horretan aurrezki garbia positiboa izan da eta horrek inbertsio programa apala finantzatzeko bide emango lioke.